


iritzia

gaurko...

...elkarriketa



Jean-Michel Barnetxe

• AVIRON BAYONNAIS-EKO
LEHENDAKARIA •

«Euskararen berreskuratzea errazten duten zuzemenak garrantzitsuak dira»

■ Akordioaren izenpetzaile gisa, nola bizi duzu zure euskaltasuna Baionan?

Euskara nire hizkuntza naturala da, eta zailtasunak ukan ditut ez galtzeko. Bordelen hamar urte ikasketa egin ondoan Baionara itzuli nintzen, eta ez zitzaidan erraz izan hizkuntzaren berreskuratzea. Nahiko bitxia da ez dezagun euskara normaltasunez ikasteko aukerarik izan. Beraz, euskararen berreskuratzea errazten duten zuzemen guztiak garrantzitsuak dira.

■ Horregatik izenpetu duzu XXI. mendeko akordioa?

Aviron Bayonnais elkartearen 2601 kirolari biltzen dira. Erdiak Euskal Herri barnealdetik datoz. Gure taldean euskara erabilia da, eta arras normal iduritzen zitzaigun eskualdeko elkarte handienetarik bat izanez mugimendu zoragarri horretan parte hartzea.

■ Akordioa izenpetuz, zertan engaiatuko da Aviron Bayonnais?

Akordioa izenpetuz, izenpetu duten beste talde eta elkarteekiko dugun elkar-tasuna erakutsi nahi izan dugu. Bestalde, konkretuki, barne aldizkari bat zutik ezartzen ari gara, eta sail bat nahi genuke euskaraz egin.

Eneko Bidegain
BAIONA

...esaera

«Hizkuntza, herriaren odola»

...hizpideak

Diru ikustezinaren balioa

Euroa heldu da azkenik, baina oraindik ezin dugu ikusi eta ukitu. Erabil daiteke, ordea, transakzio ekonomikoak egiteko. Herritar arruntak ez du transakzio ekonomiko handirik egiten: jatekoa erosi, fakturak ordaindu, soldata kobratu eta abar. Eta hori pezeta eta liberekin egiten jarraitu ahal izango du datozen hiru urteetan. Horregatik pentsa liteke euroa, hasieran behintzat, interes ekonomiko handien zereginetarako asmatua dela, banku, enpresa, burtsa eta bestelako kapital mugimenduetarako. Irudipen hori dute oraindik herritar askok. Haienztzat Europako diru bakarra zerbait urrutikoa da, bizitza errealean eraginik izango ez duena. Horren beldurrez, euroaren sorrera kanpaina mediatiko handi batez lagunduta etorri da. Izan da, era berean,

kanpaina horren ondorioz, urte berriko lehenengo egunean diru guztia aldatu eta euroak bakarrik erabili behar zituela uste zuenik. Azken horiek dagoeneko lasaia ibiliko dira. Agintari europarrek hiru urteko epea jarri dute, herritarrek euroarekin ohitu daitezen eta, betiko dirua benetan alde batera utzi behar dutenean, kezkarik edo arazorik gabe egin ahal dezaten. Hemendik 2002. urtera, euroaren errealtatea hedatuz doan heinean, ikusi ahal izango dugu egia ote den diru berriak aberastasuna eta ongizatea ekarriko dituela. Herritar arruntak irudipen hori hartzen badu, ziur aski ez da inolako arazorik izango kaleko jendeak «bere» egiteko orain arte, askorentzat behintzat, «beste» berrikuntza ekonomikoa izan dena.

Urte beltza errepideetan

■ Joan berri zaigun urtea beltza, oso beltza izan da errepide istripuei dagokienez. Datu ofizialak oraindik aurkezteke dauden arren, EGUNKARIAk egindako kontaketaren arabera 300 lagun inguru hil dira Euskal Herriko errepideetan. Horietatik herenak, 95, Nafarroan zendu dira. Iazko datuekin alderatuta, auto istripuetan hil diren lagunen kopuruak % 20 inguru egin du gora.

Urtarrilaren 9rako iragarpena

■ Urtezahar egunean hainbat udalek eta Senideak elkarteak deitutako kontzentrazioak eta manifestazioak jendetsuak izan ziren. Milaka herritar irten ziren kalera presoan Euskal Herriatzea aldarrikatzeko. Baina, jendetsuak izateaz gain, askotarikoak ere izan ziren. Hala, hainbat herritar orain arte inoiz ikusi gabekoa ikusteko aukera izan zen, alegia, EAJ, HB, PSOE, EA, IU eta beste zenbait sektoretako jendea pankarta beraren atzean bilduta.

Ondorioak ateratzen hasita, kontzentrazio horiek adierazten dute euskal gizarteak ulertu duela presoan eta senideen sofri-mendua, eta hori amaitzearen alde dagoela. Ildo horri jarraituz, iragarpen bat ere ikus daiteke herenegungo kontzentrazioen atzean. Presoen eskubideak errespetatzen ez badira, urtarrilaren 9rako Lizarrako Akordioa sinatu zuten alderdiek antolatutako manifestazioa arrakastatsua izango dela adierazten baitu guztiak

...pertsonaiak



MIGUEL PRIETO • Paris-Dakar rallyaren bigarren etapa irabazi du Gasteizko auto gidariak. Mitsubishi auto ofiziala darama Prietok, eta lasterketa irabazteko faboritoetako bat da.



CHARLES PASQUA • Datorren ekaineko hauteskunde europarretan zerrenda bat osatuko duela adierazi du Frantziako politikoko eskuindarrak. Neurri hori hartzean, RPR alderditik kanpo gera daiteke.



MARKOS KOMANDANTEORDEA • Orain dela bost urte, 1994ko urtarri-laren 1ean hasi zuten zapatistek Mexikoko gobernuaren kontrako borroka. EZLNk indigenen ohiturak onartzeko eskaera berretsi du.

...datua

300 lagun hil dira Euskal Herriko errepideetan iazko urtean. Nafarroaren kasua adierazgarria da: 95 pertsona hil ziren iaz.

...adierazpena

«Kolonbiako hainbat arduradun politikoko bahiketengatik eta ustelkeriagatik prozesatuak daude»

Mario Humberto Calixto
Giza eskubideen aldeko ekintzailea

seiko urrea

INAKI IRAZABALBEITIA

Asmoz eta jakitez

gez «eskerrak eta graziaz» *Bai Euskarari Kanpaina* bideragarri egin duzuen guztiok.

Kanpainaren konplexutasuna eta erronkaren handitasuna kontuan harturik zailena jada egin dugula pentsa lezake bateren batek. Bai zera! Oraitxe hasten da Kontseiluaren benetako lana. Amaitu berri den kanpaina Kontseiluak bideratu nahi duen ekimenaren lehen urratsa izan da. Kanpainan zehar euskararen aldeko konpro-

miso tinkoa agertu duten bakanako, elkarte eta gizarte-eragile horiekin guztiak lanean hasi beharra dago orain. Konpromisoak errealtate bihurtu behar ditugu, asmoak gertakari eta ilusioa abiatzeko indar.

Hiru ondorio nagusi aterako nituzke *Bai Euskarari* Kanpainaren emaitzetatik:

–Herri hau bizirik dagoela eta herri eta kultura izateko gogo bizia erakutsi duela.

–Elkar hartuta eta batuta

urrun ailega gaitezkeela eta indar izugarria daukagula.

–Gizarteak etorkizuna euskaraz ikusten duela eta konpromisoak hartzeko prest dagoela.

Kanpainan zehar, euskararen normalizazioaren aldeko kapital izugarria bildu dugu eta, era berean, erantzunkizunez jokatzeko ardura eman zaigu. Aurrerantzean kapitala egoki kudeatzea dagokigu gizarte-erakundeei zein erakunde publikoei: elkarlanean, osagarritasunean eta elkarren errespetuan. Halaber, euskararen normalizazioaren aldeko politika tinko, ausarta eta eraginkorra bideratzeko txeki zuria eman digu gizarteak. XXI. mendea euskararena izan dadin, balia dezagun; asmoz eta jakitez.

